

1	BASERRIKO ATE ZABALAK	2'21
2	IRAGANA ETA GEROAN	2'22
3	LUR OSOAREN ERASOAK	1'44
4	MAIATZAREN EGUN BERDEETAN	1'53
5	ABERRIAREN MUGAK	3'03
6	NEGUKO HONDARTZAK	2'37
7	EGUN BATEZ ARI NINTZELARIK	4'36
8	TXINGUDI	2'16
9	LOREAK UDAN IHINTZA BEZALA	3'06
10	TXURIKO	2'52
11	IBILTARIARENA	4'22
12	GOIZEKO EURI ARTEAN	3'52
13	USO XURIA ERRAZU	3'27
14	ISIL ISILIK DAGO	3'46

Hondarribiko entzulego gonbidatu baten partaidetzarekin
1997-ko Urtarrilean grabatua.

Gure eskerrik beroenak grabazio honetan parte hartu duten guztiei
eta bereziki Eskoriatzako IHARDUN MULTIMEDIA lantalde osoari.

Telefona
E-maila

07 33 559 54 39 73
txomin.artola@wanadoo.fr



BASERRIKO ATE ZABALAK

Walt Whitman
Txomin Artola

Baserriko ate zabalak
irekiak eta prest daude
uztaileko belar igarrak
mantxo doan orga betetzen du.

Nabarra eta berde nahasi artean
argia jostari, eta hango sataian
besatarak pilaka.

Hortxe naiz laguntzen
organ etzana iritsi naiz
hanka bat bestearen gainean nuela
dardara gozoak sumatu ditut
orga hagatik jauziaz
pagotxa eta alpala bildu ditut
itzulka noa, jira-biraka
eta belar idorra dut
nere bilo nahasietan.



2

IRAGANA ETA GEROAN

Joxan Artze
Txomin Artola

Iragana eta geroan
lehertzen den orain hau
heriotzaraino bizitzen sailatu behar dut.

Ez nuke inoiz orain hau
behin bakarrik biziko dudala, inoiz
inoiz ahortzi nahi.

Heriotza belarrondoan
dantzudalarik biziko dut une hau
nere unea.

Azkenekoa balitz bezala biziko dut
lehenengoa banu bezala biziko.

LUR OSOAREN ERASOAK


Walt Whitman
Txomin Artola



3

Lur osoaren erasoak
ezin garaitu zezakeen hiri bat
ikusi nuen ametsetan
adiskideen hiri berria zela
egin nuen amets
ez zen han, elkar maitatzeko zuten
amodio gartsua bezain gauza haundirik
gainerako guztia
gainditzen zuen amodio honek
tenore guztietan nabari zen
hiri honetako gizonen ekintzetan
beren begirada eta mintzo guztietan.

MAIATZAREN EGUN BERDEETAN



4

Amaia Iturbide
Txomin Artola

Maiatzaren egun berdeetan
euri-malkoen amoreagatik
erne dira galtzailentzako liliak
mendeetan zehar itzalak eho duen eremuan
han non eki-errainu hondarrez elikaturiko
kaden-kalatxoriek bilerak egiten dituzten
han non urrats bakanetan soilik bidea
multiplikatzen den
han non zenbat izar hainbat mezu
gordetzen zaizkien.

ABERRIAREN MUGAK


Joserra Garzia
Txomin Artola

Nire aberria lurra bezain zaharra da
baina ez da lurra bakarrik
haizeak bezala inguratzen nau eta
lotzen, askatzen naularik.

Nire aberria suaren antzekoa da
beti bera, berria beti
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean
'ta erretzen ere badaki.

Nire aberria harrizko herria da
hitzekoa eta hitzekoa
altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa
eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da
oroimenean arindua
itsaslaminen baten herdoilezko kantu
etorkizunez fosildua.



5

Aberriaren mugak, euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz lau haizeetara
zabalago egiten gara.

Aberriaren mugak, euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz lau haizeetara
zabalago egiten gara.

NEGUKO HONDARTZAK

6



Txomin Artola

Maite ditut gure neguan hondartza bakartiak.
Olatuen soinuek babestuta sentiarazten naute
eta itsas haizeak ezpainetan uzten didan gazia
atsegin zait.

Zerua erabat lainotuta egoten da
eta bakarrik ibiltzen naiz, hitz egiten ozenki
hara eraman nauen iluntasuna bertan hustu arte osoki.

Nere txakurrak ere maite ditu neguan hondartzak
oso ongi bait daki, etxeratu baino lehen,
berarekin jostatzeko gogoak itzulita izango ditudala.

Maite ditut gure neguan hondartza bakartiak.

EGUN BATEZ ARI NINTZELARIK

7



Tradizionala

Egun batez ari nintzelarik
sala batean brodatzen
itxasotik aditu nuen
mariñel bat kantatzen
mariñel bat kantatzen eta
bertsu ederrak emaiten.

Broderia utzi eta
joaiten naiz amarengana
eia utziren ninduien
itxaso bazterrerat
itxaso bazterrerat eta
bertsu heien entzuterat.

Andereño, andereñoa
zatoz beraz barnerat
zatoz beraz barnerat eta
gurekin afaiterat
gurekin afaiterat eta
aita-amen mintzatzerat.

Mariñela, mariñela
emak untziari bela
orai hemen atxeman dut
desiratzen nuena
orai hemen atxeman dut
desiratzen nuena.

Kapitaina, kapitaina
etzalazia bekatu
andere lerdin polit hori
behar duzia tronpatu
andere lerdin polit hori
behar duzia tronpatu.

Itxasoak urak lodi
ez dizu zola ageri
ene maitia han dabila
arraina bezain igeri
ene maitia han dabila
arraina bezain igeri.

8 TXINGUDI (Instrumentala)

Urbil Artola



9

LOREAK UDAN IHINTZA BEZALA

Bilintx
Tradizionala

Loreak udan ihintza bezala
maite det dama gazte bat
hari hainbeste nahi diotanik
ez da munduan beste bat
iñoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe aste bat
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza triste bat.

Ez al didazu antzik ematen
nik zaitudala nahiago
ai, mariñelak gau ilunian
izarra baiño gehiago
nere onduan zauztadalako
pozez zoraturik nago
zu ikustiak alegatu nau
triste neguen lehenago.

Nere betiko pentsamendua
nere konsolagarria
zu gabetanik ezin bizi naiz
esaten dizut egia
zu baziñake arbola eta
ni banintzake txoria
nik zu ziñaken arbol hartantxen
egingo nuke kabia.

TXURIKO

Fernando Artola "Bordari"
Txomin Artola



10

Gu gazte giñadela txalupa guztiak
zakurtxo bat ohi zuten ontzi barrenean
begi erne, abilla, ez zen zaunkaria
ihes zihoan arraia arrapatzailea.

Seme esango dizut nola gertatzen zan
puñtutako arraia sueto batzuetan
legatzak ospa, ihes, txakurra jauzten zan
ta bet-betan arraia hartzen zuen hortzetan.

Lana horren saria "txakurraren partia"
deitzen genion guziok, ongi merezia
maitea-maitea zan txakur ehiztaria
txalupa betetzen zuen anima gabiak.

Unea etorri da zuri kontatzeko
zer nolako txakurra zen gure Txuriko
uhin izugarriak ez zuen izutuko
arraia utzi baino lehenago itoko.

Goiz itsusi batean ez naiz ez ahaztuko
bere lana beteaz jauzi zen Txuriko
baga haundi artean, ehiza ez utziko
legatz haundi batekin ito zan betiko.



11

IBILTARIARENA

Joserra Garzia
Txomin Artola

Agur ta banoa
ni ez bait naiz hemengoa
ez dut ekipairik
nere gitarra baizik
ta zure itzala
ipar-orratz bezala
zama arina da
amaigabea bidea.

Agur ta banoa
ni ez bait naiz hemengoa
ez dut aberriarik
libertatea ezik
t'aspaldi luzean
bizi naiz erbestean
inoren etxean
arrotzen artean.

Agur ta banoa
ni ez bait naiz hemengoa
ez dut helbururik
ibiltzea besterik
nekeen gainetik
ametsaren azpitik
haizeak naroa
ez naiz inon inongoa.

GOIZEKO EURI ARTEAN

12

Txomin Artola

Goizeko euri artean, guardasolarik gabe
eskuak sakelean, pena bat bihotzean
etxetik urruti nago, kaletan bakarrik
goizeko euri artean, gitarra bakarrekin.

Lan bat hartu behar dut, gaur zerbait bazkaltzeko
iñork ez nau hartu nahi, arrotza naizelako
kaletan abestu dut nere herriko kanta
jendeak zerbait utzi du goizeko euri artean.

"Ez horrela ibili" neskatzak esaten dit
"hobeki hemen bizi gu biok elkarrekin"
batzuetan galdetzen diot nere buruari zertarako
naizen hemen, zergatik ari naizen betiro kezkatzen.

Bainan aurrera joan behar dut bidea hartu arte
bakarrik izan behar dut hori iritzi arte
eta egun on batean pozik ikusiko dut
eguzkia agertzen goizeko euri artean.





13

USO XURIA ERRAZU

Tradizionala

Uso xuria errazu nora juaiten ziren zu Nafarroako bortiak oro elurraz betiak dituzu gaurko zure ostatu ene etxean baduzu.

Ez nau izutzen elurrak, are gutxiago gau ilunak maitiagatik pasa nezazke gauak eta egunak gauak eta egunak, *desertu* eta oihanak.

Usoa eder aidian, ederrago oihanian maitia, zure parerik ez da Espaina guzian ezta ere Frantzian, iguzkiaren azpian.



14

ISIL ISILIK DAGO

Tradizionala

Isil isilik dago, kaia barrenian ontzi txuri polit bat, uraren gainean.

Goizeko ordubietan, esnatutzen gera arrantzaliak beti, joateko urrutira.

Pasatzen naizenian, zure leihopetik negarra irtetzen zait, begi bietatik.

Zergatik, zergatik, zergatik negar egin? Zerua izarra dago, itxaso aldetik.